

**"ELGOIBARKO HAURREN EUSKALDUNTZE
PROZESUAREN OINARRI TEORIKOAK"**

Elgoibar, 1992.go Iraila

**"ELGOIBARKO HAURREN EUSKALDUNTZE
PROZESUAREN OINARRI TEORIKOAK"**

Elgoibar, 1992. go Iraila

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- ELGOIBARKO DIAGNOSIA:

- EZAGUTZA
- ERABILERA

3.- NOLA IKASTEN DA HIZKUNTZA BAT?

4.- FISHMAN ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN BEHARRA.

5.- ZER EGIN DAITEKE?

6.- GERORA BEGIRA.

7.- BIBLIOGRAFIA:

- Txepetxen "Un futuro para nuestro pasado" liburua
- Fishmanek "Euskal eskola publikoaren lehen kongresuan" aurkeztutako ponentzia
- Elgoibarko datuak.

8.- ERANSKINA

1.- SARRERA

Askotan aipatzen den arazoa eta biziki kezkatzen gaituena euskeraren erabilerarik eza edo berori gutxi erabiltzea da. Horren ondorioa jakina da. Tresna bat erabili ezean erdoildu egiten den bezala, horixe gertatzen zaio erabiltzen ez edota gutxi erabiltzen den hizkuntzari ere: komunikazio-tresna bizia izan beharrean ezer gutxitarako balio duen tresna zaharkitu eta baliogabea bilakatzen da. Beraz, euskararen arazorik nagusienetariko bat noiznahi eta nonnahi erabiltzearena da.

Adin sektore guztietan soma daiteke arazoa; bai haur, gazte heldu eta baita nagusien artean ere, desoreka handia gertatzen da ezagutza eta erabileraren artean. Nahiz eta euskara dexentek ezagutu eta hitzegiteko gaitasuna izan, gutxik eramaten dute gaitasun hori praktikara. Hau baieztatzen digute Elgoibarren 1986 eta 1990ean egindako kale neurketek eta berauek dira erreferentzi puntu onenak.

Ikus ditzagun:

	EZAGUTZA (1986)	ERABILERA (1986)	ERABILERA (1990)
HAURRAK (0-14)	%57	%26	%25.70
GAZTEAK (15-24)	%50	%16.5	%16.47
HELDUAK (25-64)	%47	%15	%14.89
NAGUSIAK (65...)	%74	%36	%36.77

Erdarak gure herrian, herri gehienetan bezalaxe, funtzio gehienak bereganatu ditu, euskarari esparru gehientsuenak janez. Bere prestigioa euskararen gainetik kokatzeak, jendea erdaraz hitzegitera bultzatzea dakar, norberaren hizkuntza gutxietsiz. Gainera, zertarako kezkatu edota ahalegindu euskaraz hitzegiten? Oso ondo konpontzen gara erdaraz eta ez dugu inolako arazorik hizkuntza honen bidez komunikatzeko, denok bait dakigu.

Honek helduengan ezezik gazte eta haurren ere badu eragina. Jakina denez, helduak dira gazteen eredu eta azken hauek bihurtzen dira haurrentzat eredu. Beraz, aurreko adin taldea da eredu imitagarri ondorengoentzat. Noiz hartzen du berebiziko garrantzia prozesu honek? Bada adin bat, 13-14-15 urte inguruan, non nagusi izateko gogo nabarmendu egiten den. Gazteek, adin honetan, euskara ume txikien hizkuntzatzat jotzen dute eta jostailu eta panpinekin gertatzen den bezalaxe, alde batera uzten dute, haurtzaroko elementu guztiekin batera (gogoratu askotan entzun dugula euskara ume eta txakurren hizkuntza dela, beraiei egiten bait zaie gehien bat). Beraz, ez da harritzekoa erdaraz hitzegiteak prestigio gehiago edukitzea gazteen artean, horrela, nagusien hizkuntza hitzeginez, nagusiago sentitzen bait dira. Gainera, familiarengandik eta eskolatik independizatu doan heinean ez du aurkitzen euskarazko eredurik, nor imitatu, nori jarraitu, bi eremu horietatik at, ez baitago.

Bestalde, adin honetan sortzen dira bikote eta abarren arteko harremanak, eta une berezi honetan aukeratzen duten hizkuntza izango da aurrerantzean erabiliko duten komunikazio-tresna. Behin puntu honetara iritsi ezker, kontzientzia sendoa behar izaten da ohitura hori apurtu eta euskarara itzultzeko.

Ikastoletako haurrak ere, zenbat eta nagusiagoak izan, gaztelaniaz mintzatzeko joera handiagoa dute; ez gaitu jadanik harritzen 12, 13 eta 14 urteko lagun taldeetan gaztelaniaz mintzaten ikusteak, bai eskolako atsedendian, baita eskolatik at ibiltzen direnean ere.

Haur txikiek ez dute hainbesteko joerarik eta euren artean gehiago mintzaten dira euskaraz. Baina ingurua zenbat eta zabalagoa izan, eta esparru gehiagotan mugitu, orduan eta gazteleraizko joera handiagoa nabaritzen da. Haur nagusienek inguru honetan sarbidea lortzen duten neurrian, giro erdaldunaren eragina jasaten dute. Elgoibarko kaleetan euskararen presentzia oso eskasa denez, nahiz eta ikasketak euskaraz jasotzen ari, mundu erdaldun baten murgilduta daude, batipat euren etxeetan gazteleraiz hitzegiten badute. Hau horrela mantentzen bada euskara irakaskuntzaren tresna bat bihur daiteke, harreman pertsonaletatik kanpo geldituko delarik.

Elgoibarren gizarte harreman gehienak erderaz direla esan dezakegu, erosketak egiterakoan, paseatzerakoan eta abar. Horregatik, gure hurrek, kalean erabiltzeko euskara ez dela beharrezkoa ikusten dute. Elgoibarren, herri mailan, ez dago ia ezer euskaraz umeentzat; badirudi euskara eskolan erabiltzeko tresna bat bakarrik dela.

Haurrak inkonszienteki hitzegiten du, bere inguru hurbilenean euskaraz egiten bada berak ere euskaraz egingo du, pentsatu gabe. Baina umeen inguru hori oso mugatua da (familia, eskola...) eta urteak pasa ahala gizarteko beste esparru batzuetan ere mugitzen da gaztea (aisia, lana, lagunartea, harreman berriak...) eta, halaber, gizartean dagoen hizkuntz gatazkaz ohartzen da, gizartearen benetako indarra, eragina duen hizkuntza erdara dela konturatzen delarik.

Hau dela eta euskararen presentzia handiagoa izan dadin zenbait aktibitate antolatu beharko lirateke nolabait irakaskuntzan lortzen dena kalean ez galtzeko edo beste modu batetan esanda, eskolan ikasten dena kalean erabiltzeko. Euskararen erabileraren aldeko jarrerak sortarazi eta eragingo dituzten inguru-giro eta barrutiak sortu behar dira.

Beraz, leialtasun linguistikoa aurretik landu behar da eta euskara ikastetxeetatik kanpo ateratzea ere behar beharrezkoa da. Euskaraz hitzegiteko ohiturak aurretik finkatu behar dira eta hurrei erakutsi posible dela hizkuntza honen bitartez bere nahi eta beharrak asetzea.

Berriro lehengora itzuliz eta apur bat laburtzeko zera esan genezake: euskara, ikastetxe, zenbait komunikabide eta zeregin konkretu batzutarako hizkuntza bihurtzen ari ote zaigu? Zer gertatzen da Elgoibarko haurren artean hizkuntza aukeraketan?

Aski al da eskolan emandako ezagutza haur horiek erabili dezaten edota zenbaiterainoko eragina du eskolak haur baten garapenean?

Askotan pentsatu izan zen eskolarekin dena konponduta zegoela baina oso inportantea izanik ere, gure bizitzan zehar beste hainbat esparru ukitzen ditugu, adinaren arabera gehitzen eta zabaltzen joaten direnak.

Haurraren gizarteratze prozesuan ikaskuntz sistemak izugarrizko garrantzia badu ere, haur hori bizi den ingugunea ere moldatu egin behar da eta beharrezkoak diren bitartekoak eskaini behar zaizkio haur horri bere bizitza euskaraz egin ahal dezan.

Irakaskuntza, azken finean, bizitza eta gizarteko potzu bat baino ez da. Potzu hori itsasoratzean (haurra gizarteratzen denean) galdu egiten da; itsasoak, hau da gizarteak, irentsi egiten du.

Gure herriko haurrek ezagutza maila altua izan arren (%57) hauetako erdiak ere ez dute euskaraz mintzatzen (%26), beraz, zerbaitek huts egiten du prozesu horretan, badago hutsuneren bat eta hutsune hori behar bezala betetzean dago kaxoa.

2.- ELGOIBARKO DIAGNOSIA

2.1.- EUSKARAREN EGOERAREN DATU OROKORRAK:

Erabilerarekin hasi aurretik, komenigarria iruditzen zait ezagutza datuak azaltzea -bai ama hizkuntzari dagozkionak eta baita hizkuntz gaitasunari dagozkionak ere-. Kasu batzutan jatorriz erdaldunak direnek ikasi egin dute hitzegiteko gaitasuna eskuratuz, eta beste kasu batzutan ama hizkuntza euskara dutenek baztertu egin dute gaitasun hori galduz. Ez hitzegiteak, hizkuntza horretan hitzegiteko gaitasuna galtzea dakar, eta gaitasun hori ez badu, ezin izango du hitzegin.

1986ko datuak
Ezagutza

Orokorrean
Ama hizkuntza


Biztanle kopurua: 12.346
Euskara bakarrik: 47,01
Euskara eta gaztelania: 6,68
Gaztelania: 43,91

Hizkuntz gaitasuna

Biztanle kopurua: 12.045
Euskaldunak: 53,08
Ia euskaldunak: 17,88
Erdaldunak: 29

<u>ADIN TALDEKA</u>	<u>AMA HIZKUNTZA</u>	<u>HIZKUNTZ GAITASUNA</u>
BIZTANLE KOPURUA	12.346	12.045
3-17 URTE	51.74	56.88 (+5)
18-24 URTE	50.16	49.82 (-0)
25-34 URTE	46.40	41.75 (-5)
35-44 URTE	51.93	47.91 (-4)
45-65 URTE	55.36	53.78 (-2)
65... URTE	55.23	44.45 (-1)

Ikus dezagun datu hauen irudi grafikoa:



Ageri zaigunez, ama hizkuntza hizkuntz gaitasunaren gainerik kokatzen zaigu adin talde guztietan, 18 urte baino gazteagoetan izan ezik.

65 urte baino gehiago dutenetatik hasi eta 25 urtetaraino jeitsiera nabarmena somatzen da aldagai bietan. Ondoren, 25etik 18ra, aldagai biek goraka egiten dute.

Azkenik eta gaztetxoetan, aldagai biak igo egiten dira (ama hizkuntzan oso gutxi), hizkuntz gaitasuna ama hizkuntzaren gainerik kokatzen delarik.

KENK INDIZEA: -0,59, negatiboa; hau da, gehiago dira galdu dutenak ikasi dutenak baino.

Hau jakin ondoren erabilera aztertzen has gaitezke. Hauek dira datuak:

1986:

Ezagutza: Euskaldunak	6.429	%53,08
Ia euskaldunak	2.195	%17,8
Erdaldunak	3.531	%29

Erabilera: (%20,7)

	EZAGUTZA (1986)	ERABILERA (1986)
HAURRAK (0-14)	%57	%26
GAZTEAK (15-24)	%50	%16.5
HELDUAK (25-64)	%47	%15
NAGUSIAK (65...)	%74	%36

1990: (Kale neurketako datuak) Erabilera %20

ERABILERA (1990)	ERDERAZ	EUSKARAZ
HAURRAK (0-14)	1353 %74.30	468 %25.70
GAZTEAK (15-24)	1531 %83.53	302 %16.47
HELDUAK (25-64)	4292 %85.01	758 %14.99
NAGUSIAK (65...)	834 %63.23	485 %36.77

Azken datuen arabera, Elgoibarren euskara gehien erabiltzen dutenak umeak eta zaharrak dira, eta aldiz, heldu eta gazteen artean oso baxua da. Nahiz eta adin honetako gaztediaren artean euskara ezagutzen dutenen kopurua handia izan, kalean hitzegiterakoan %16,47ak bakarrik erabiltzen du euskara.

Nahiko nabarmena da, ume adinetik gazte adinera igarotzen den tarte honetan gertatzen den haustura eta heldutasunera iristerakoan ematen den jeitsiera.

Ikusten denez, erabilera hizkuntz gaitasunaren azpitik (eta nabarmenki gainera) azaltzen zaigu adin talde guztietan.

2.2.- HAURREI DAGOZKIEN DATUAK

1990-91 ikasturtea

Ezagutza: Hizkuntz ereduen banaketa.

	A eredua	B eredua	D eredua
Haurtzaindegia	%0	%0	%100 ¹
Eskolaurrea	%0	%23	%77
Hasiera z.	%0	%45.2	%54.8
Erdi z.	%16.2 ²	%34	%35.2
Goi z.	%34.4 ³	%27.5	%37.1
O.H.O.	%21.6 ⁴	%38.4	%40

Erabilera:

%25,70 euskaraz

¹ 21ek jatorri euskalduna eta 5ek jatorri erdalduna

² %17,1ak jatorri euskalduna du, hau da, 70 haur dabilta A ereduan baina 70 haur haueetatik 12k euskara ezagutzen dute.

³ %15,2k jatorri euskalduna du, hau da, 184 haur dabilta A ereduan baina horietatik 28k euskara ezagutzen dute.

⁴ %15,7ak jatorri euskalduna du, hots 254 haur dabilta A ereduan, baina haueetatik 40k badakite euskaraz.

3.- TXEPETXEN TEORIAREN ARABERA,
NOLA IKASTEN DA HIZKUNTZA BAT?

Badugu gaitasun bat animaliangandik bereizten gaituena eta hau hizkuntza da. Baina zein edo zeintzu dira pertsona batek jarraitzen dituen pausoak hizkuntza batetaz jabetzerakoan? Hauek dira hizkuntza baten ikas-prozesuaren hiru oinarriak:

1.- Motibazioa:

Orokorki harturik, hizkuntza bat ikasteko dauden arrazoiak, interesa, ... da. Baita hizkuntza horretan irauteko gogoia ere.

2.- Ezagutza:

Hizkuntzaren funtzionamendua antzemateko ahalmena eta prozesua da. Hizkuntza bat jakitea eta ezagutzea.

3.- Erabilera:

Hizkuntza komunikazio tresna bezala erabiltzen dugunean: pentsatzeko, komunikatzeko ... Aurrerago ikusiko dugun bezalaxe hirurak oso lotuta daude. Faktore hauetako bakoitza berezkoa, naturala edo induzituaizan daiteke.

1.- Motibazioa:

Berezkoa: Oharkabean, pentsatu gabe ... eragiten duena da, haurraren kasua adibidez.

Kulturala: Ohartuta, pentsatuz, arrazoituz jokatzen denean gertatzen da; arrazoi edo motibazio politikoa, ekonomikoa ... Motibazio hau instrumentala (gauza konkretu baterako ikasi nahi denean: lanpostu baterako adibidez) edo integrationala (hizkuntz komunitate bateko partaide izan nahi denean) izan daiteke.

2. Ezagutza:

Maila diferenteetan ezagutu daiteke hizkuntza:


Berezkoa: Haur batek edota alfabetatu gabe dagoen euskaldun batek hitzegiten duenean, hau da, ulermena eta mintzamena baditu baina ez du gramatika ezagutzen.

Konszientea: Hizkuntzaren barne funtzionamendua ezagutzuz hitzegiten denean, hau da, gramatika ere ezagutzuz.

3.- Erabilera:

Berezkoa: Automatikoki, hizkuntzaren barne katramilez ohartu gabe. Berez ateratzen da, pentsatu gabe.

Konszientea: Hizkuntzaren mekanismoez ere ohartuz. Gauzak honela bi ibilbide bereizten dira hizkuntzaren ikas-prozesuan: naturala edo berezkoa eta kulturala.




Ibilbide naturala edo A ibilbidea.
Haurrengan eragiten duena.
Erabilera da motorra.

Haur bat ez da hasten motibazio konsziente batetik; bere inguruneak ematen dion zerbait da. Berezko ikaskuntza honetan gizartea edo ingurunea da eragilea; norbanakoak, ingurune horren aurrean erreakzionatu eta berorretara moldatzen da hizkuntzaren erabilera, ezagutza eta motibazioa era natural batean ematen direlarik.

Haurra hizkuntza erabiltzen hasten da, beraz, ERABILERA da prozesu honen motorra. Hasieran bere nahi eta beharrak betetzeko tresna bezala erabiltzen du: gauzak eskatzeko eta abar. Erabili ahala hizkuntza hori hobeto ezagutzen du; konturatzen da nola hitzegiten den edo duten ingurukoek eta ikasi egiten du. Honek motibazioa ere areagotu egiten du. Zergatik? Ikusten duelako hizkuntza horren bitartez gai dela komunikatzeko eta balio duela berak nahi duena lortzeko; honek, berezko motibazioa ekartzen du.


Baina ez dugu ahaztu behar departamentu batetik bestera igarotzeko beharrezko maila lortu behar dela, hau da, erabilera garatu behar da ezagutzara pasatzeko eta hau motibaziora igarotzeko. Maila honi nahikotasun maila esaten diogu. Nahikotasun honek ahalbidetzen ditu pausu horiek (erabilera edo ezagutzarik gabe, haur batek ez du motibaziorik izango).



Baina kontuz, hiru faktoreak oso lotuta daude. Ez da lehenik motibazioa oso-osoan harrapatzen, gero ezagutza oso-osoan jasotzen eta azkenik erabilpena bete-betean garatzen. Gauzak ez dira horrela, beste era honetara baizik: motibazioak ezagutza dakar eta honek, erabilpenerako jauzia sortzeaz gain motibazioa areagotzea dakar, eta motibazioa areagotze honek ezagutza areagotzen du etab. Azaldutako bi ibilbideak prozesu diferenteak dira, baina zirkuitu bakarra osatzen dute, hau da, hiztun osoa lortzeko biotatik bat behar da:


- A+B edo
- B+A

A ibilbideduna ez da, besterik gabe hiztun oso; ez eta B ibilbidekoa ere. Arazoa, beraz, zera da; berezkotasuna kulturaz osatzea; oharkabean lortua, ohartuki ikasitakoaz osatzea.




Hiztun osoa izateko ez da aski berezko automatismoa, barnejariotasuna. Biak dira osagarriak eta beharrezkoak. Baina nola iritsi puntu honetara prozesuan zehar zerbaitek hutsegiten badu?

Nola departamendu bakoitzean nahikotasun maila lortzen ez bada?
Azter dezagun sakonkiago haurraren prozesua edo ibilbidea.



Ibilbide honen motorra erabilera da. Erabilera hau garatzeko haurrak familia, eskola eta abarren laguntza behar du, hau da, inguruarena. Haurrak ikas dezake hizkuntza etxean, eskolara joan gabe; ikas dezake eskolan, nahiz eta etxean ez jakin baina somatzen badu lagun artean edo kalean hizkuntza hori ez dela baliogarria, berehala saiatuko da aldatzen. Ezagutzatik motibaziorainoko pausoa eman izan ahal dadin, erabileraren departamentua ondo beteta izan behar du, ondo kargatua egon behar da, berau bait da prozesu edo ibilbide honen abiapuntua. Erabileraren departamentua ondo betetzeko lagungarri den ingurunea sortu behar da bai etxe, kale, eskola eta lagunarte mailan, berauek bait dira haurraren ikas prozesua baldintzatzen dutenak eta haurraren eragin zuzena dutenak. Hori horrela gertatu ezean, etendura bat gertatuko litzateke prozesuan zehar, haurrak ez bait luke lortuko beharrezkoa den maila motibaziora pasatu ahal izateko:



Honelako kasuetan haurra deseroso sentitzen da eta inguruak markatzen dizkion ereduak jarraitzen ditu. Madrileko haur batek ez du horrelako arazorik: etxean erdaraz hitzegingo diote, gurasoek erdaraz hitzegingo dute elkarren artean, etxe, kale eta lagunarteko harremanak erdaraz gauzatuko dira... eta abar. Haur honek erabileraren departamentua beteta izango du eta motibatua sentituko da erdaraz hitzegiteko, hau baita inguruan entzuten duena.

Baina gure kasuan, eta gauden egoera dela medio, ez da horrela gertatzen. Gure haurrek eskolan euskaraz entzuten dute, kasu batzutan baita etxean ere baina ez beste esparru gehienetan. Gainera bada hemen beste arazo bat eta hau adin taldeena litzateke (sarreran aipatutakoa). 7-13 bitarteko haurrek, 13-14 urte dituztenak imitatzen saiatzen dira (azken hauen eredu, helduak direlarik).

Haur horien erabilera sendotu egin beharko da arazo hauei nolabaiteko fretoa jartzeko edo aurre egiteko. Beharrezkotzat jotzen da eskoletan euskaraz funtzionatzen duten komunitate txikiak osatzea besteentzat eredu imitagarri bihurtuz eta euskararen aldeko joerak zabalduz. Haurra txikia den bitartean eskolak eta helduek (zenbait kasutan) euskarritzen dute, babesa ematen diote. Baina, haurra hurratsez-hurrats, erabilera eremu berriak bereganatuz eta helduengandik independizatuz doan heinean, bakarrik abiatzen da egin gabe dagoen bidetik. Kontutan izan, normalean, eskolaz kanpoko ekintza gehienek erdaraz funtzionatzen dutela: klase partikularrak, polikiroldegia, kirol-taldeak... Hau honela izanik, nola bete daiteke behar bezala erabileraren departamentua?

Eta honekin sarrera ematen diogu Fishman-ek "Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresuan" aurkeztutako ponentzian dioenari.

4.- FISHMAN: ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Zenbaterainoko garrantzia du eskolak auzi honetan?

Eskolak bere biziko garrantzia du sarritan; sarritan esaten dugu ez delako beti horrela gertatzen. Haur bati ezagutza bi iturritatik etor dakioke: bai eskolatik eta baita etxetik ere.

. Haur batek 3. puntuan ikusi dugun ibilbide naturala eskolara joan gabe ere gara dezake, baldin eta bere etxean hizkuntza hori erabiltzen bada (hizkuntz transmisioa)

. Eskolan ere, gaiari behar adinako garrantzia emanaz gero, hitz etorri oparoa lor daiteke hizkuntza horretan.

Baina eskola bidez eskuratutako hizkuntzotan, hitz etorri erraza lortzeak eta hartan irauteak, gehiago zor die azken finean eskolaz kanpoko iharduerari eta eskola urteak bukatu ondoko faktoreei (hizkuntza erabiltzeko aukerari, erabileraren balio funtzionalari eta antzeko faktoreei) eskola barneko faktoreei baino (ikastorduei, irakas metodologiei, ikas materialari...).

Zalantzarik ez duen egia da hizkuntza baten iraupenerako, populazioak haren ezaguera behar duela lehendabizi, nekez mintzatuko bait da hizkuntza batean hura ezagutzen ez duena. Hortik ez daiteke atera ordea, hizkuntza bat ezagutzen duen guztia baliatzen dela hartaz (eta hau garbi geratu da datuetan). Horretarako hizkuntzaren ezaguera eta erabiltzeko erreztasuna ez ezik, haren erabilerarako barruti eta alorrak, eta hizkuntza bat ala besteaz mintzatu erabaki arazten duten motiboak ere badute zerikusia. Eskolaz kanpoko eta eskola-aldiaren ondoko loturak eta indargarriak behar beharrezkoak ditu eskolak, ikasleek eskolan jasotako trebetasun eta ezagutza horiek indartuz joango badira. Bestela, joan gaitezke Euskal-Herriko edozein herritara eta ikusi haur eta gazte kopuru handi bat zein hizkuntzatan jolasten diren, erdaraz edo euskaraz. Benetan tamalgarria da euskaldun herri txikietan haurrak erdaraz jolasten ikustea. Umeak euskaraz ez jolasteak esan nahi du euskarak ez duela erro sakonik umearen baitan, eta horixe da alarma seinale bizia. Beraz, euskararen sena berreskuratzea eta umei euskaraz jolasten irakastea beharrezkoa da euskarak aurrera egingo badu. Irakasleak egin dezakeena gaiaren ezaguera hobea ematea da eta kasurik onenean erabilera bera bultzatzen saiatzea; hala eta guztiz ere, ezin dezake eragin gizarte erabileraren areagotze garrantzizkorik. Hizkuntza erabiltzeko ezinbesteko baldintza da hizkuntza hori ezagutzea; ez da haatik nahikoa (gogoratu 3. puntuan azaldu duguna).

Honekin zera esan nahi dugu, haur batek euskaraz egin dezan ez dela aski euskara (edo euskaraz) irakastea. Haur hori bizi den giroan, gizarte giroak erakutsi behar dio hizkuntza hori erabiltzeak merezi duela, erabilgarria dela eta bere nahi eta beharrak asetzeko nahikoa dela.

Ezaguera ez da erabileraren sorburu, ez eta eragilea ere. Ondorioz euskararen erabilera **eragiteko** ez da aski ikasgelan irakastea, gizarte girora eta egunerokotasunera sasoz eta indarrez gerturatu behar da.

Eskolaren eragina ez da berdina adin guztietan. Txikia denean eskolak eta etxeak asetzen dituzte bere behar eta nahiak; baina nagusitzen joan ahala hauen garrantzia gutxitu egiten da eta beste esparru batzuetan mugitzen hasten da. Eskola-adineko haurrak, gero eta gehiago, gizartearen eraginpean daude; familiaz eta eskolaz kanpoko eraginguneen mende egon ere.

Txikia denean ere, ikus dezagun zer gertatzen den (gutxigorabehera):

	10 ordu 10
	6 ordu klasean
180 (klase egunak)	8 ordu:
	- familian
	- lagunekin
365 (urteko egunak)	
	10 ordu 10
180 (opor egunak)	14 ordu ????

Argi ikusten da ordu asko direla urtean zehar eskolatik kanpo pasatzen dituenak eta ordu hauetako batzuk dira hain zuzen ere aprobetxa ditzakegunak, beraien artean euskararako ohiturak finkatu eta sendotzeko, eskolaz kanpoko ekintzen bidez.

Izan ere gero eta gehiago ikus daiteke haurrentzat euskara eskolako hizkuntza bihurtzen ari dela eta eskolarekin lotura duten ekintzetan erabiltzen dutela (B ereduko en kasuan) bakarrik. Beste batzuk (D), "etxean" eta eskolan erabiltzen dute; etxean, euskaraz hitzegiten diotenean eta eskolan, irakaslea aurrean dagoenean (pasiloetan eta jolaslekuetan ez da arraroa erdaraz entzutea, batez ere, nagusienak)

5.- ZER EGIN DAITEKE?

Ikasgelan lortutako gaitasuna murriztu edo hutsaren hurrengo bihurtzen zaie ikasleei erabiltzeko orduan ingurugiro erdaldunaren eraginez, eta okerrago dena, ikasle horien arteko hizkuntz ohiturak erdaraz finkatzen hasten dira.

Egoera honi aurre egiteko, ikasle horien ingurugiro osoa aldatzea zaila ikusten bada ere, posible da ohizko irakaskuntzatik kanpoko ekintzak antolatzea.

Helburuak

- . Familia edota inguruagatik euskaraz bizitzeko bitartekorik ez dutenei lagundu, euskara eskolatik kanpoko hizkuntza ere bihurtuz.
- . Haurrak talde berri batean murgilduta, giro atseginean, besteekin harremanetan eta plazerrez esperientzia berriak bizitzea.
- . Haurra, bizi den inguruarekin edo tokiarekin erlazionatzea.

Zein maila eta ereduri eman lehentasuna?

. Ereduak

A eredia ez dugu sartu planifikazio honetan haur hauek duten hizkuntz gaitasuna oso urria delako. Txikitatik A eredian ibili diren neska-mutilek ez dute normalean euskaraz egiten: ez beren artean eta ez besteekin. Ez dira euskaraz egiteko gai.

A ereduko ikasle gehienek gaitasun-mailak (salbuespenak salbuespen) ez du euskaraz jarduteko aukera handirik eskaintzen. Gainera ikusten da eredu hau desagertzeaz dagoela gure herrian.

Bestalde, B eredukoak, nahiz eta hainbat euskal esamolde jator ez jakin, gai dira mintzajardun arruntean adierazi behar dutena euskaldun gehienek ulertzeko moduan azaltzeko. Euren artean erdaraz egiten dute ordea, besteak beste, errazago gertatzen zaielako.

Hau ikusirik garbi dago B ereduak eduki behar duela lehentasuna, berauek baitira zailtasun handienak dituztenak eta eskolaz kanpo gune gutxien dutenak euskaraz mintzatzeko. Hala ere, komenigarria litzateke D eredukoak ere sartzea plangintza honetan. Nahiz eta euskaraz ikasi eta askotan etxeoak ere euskaldunak izan, sarritan erderaz aritzen dira beraien artean eskolako ikaskideekin, lagunekin eta, zenbaitetan, baita anai-arrebekin ere; argi dago beste euskarri mota bat behar dutela euskararen aldeko jarrera piztu eta euskaraz hitzegiten jarrai dezaten nagusitzen joan ahala.

Ereduen kontu honetan badago beste arazo bat . D eredukoek ez lukete inongo arazorik eduki beharko euskaraz hitzegiteko baina, B ereduak oso ezberdinak izan daitezke elkarren artean eta honek badu bere garrantzia taldeak osatzerakoan; haur batek ikusten badu bera ez dela gai besteak bezala hitzegiteko, agian, frustratua senti daiteke eta ez litzateke gustora egongo. Gainera, besteek ere honen ezintasuna ikusirik, erdarara joko lukete eta hau da, hain zuzen ere, ekiditu behar dena. Beraz, taldeak osatu aurretik komeniko litzateke gure herrian zer nolako B ereduak ditugun jakitea.

Bestalde, monitoreek ikusi beharko lukete haurrek zailtasunak dauzkaten ala ez eta hala eritziko baliote, taldez aldatu beharko lukete haurra.

. Maila

Mailari dagokionez ere guztiek parte hartzea litzateke egokiena, lehen esan dudan bezala, denek dutelako laguntza honen beharra. Halere, lehentasunak jarri behar direnez, hasiera ziklotik hastea komeniko litzateke. Zergatik? Adin honetan finkatzen direlako ohiturak eta hau da, hain zuzen ere, landu behar dena.

Helburua ez da haurren artean noizbehinka euskaraz egitea, portaera hori finkatzea baizik; eta horrela, jarduera hori askotan errepikatu araziz, ohitura bilakatzea.

Horixe da ohitura bat: hitz egitera doan bakoitzean, umeak ez dezala hizkuntza bat ala bestea aukeratu beharrik izan, automatikoki euskara atera dakiola.

Euskaraz egiteko gaitasuna eta ohitura adin honetan lortu beharra dago, beranduago oso zaila izango baitzaio eta kontzientzia irmo batek bakarrik aldarazi dezake erdaratik euskarara dagoen jauzia .

Garbi dago guzti honi jarraipen bat eman behar zaiola hankamotz ez gelditzeko, beraz, Hasiera Zikloan hasten den haurrak, Erdi eta Goi Zikloan ere behar du plangintzaren jarraipena.

Garrantzitsua da haurrak nagusitu ahala dinamika honetan murgilduta egotea, adinak eragin inportantea baitu ikasleen eguneroko bizimoduan: hasieran familiari itsatsiago daude eta gero, hazten dihoazen heinean, autonomia pertsonal handiagoa eskuratu eta gizarte-bizitza zabalean barneratzen dira gurasoen babes-eremutik urrunagotuz. Zer gertatzen da ondorioz? Ama hizkuntza euskara duten ume askok, nahiz eta eskolan euskaraz ikasi, gehienetan erdara izaten dutela beraien hizkuntza nagusia. Beren barne-pentsakizunak erdaraz bideratzen dituzte eta erderazko hizkuntz gaitasuna landuagoa eta sendoagoa dute: hitz etorri hobia dute besteak beste erdaraz.

Horregatik da ezinbestekoa Erdi eta Goi-Ziklora ere zabaltzea ekintza hauek, Hasiera Zikloan hartu dugun haurra, Goi Zikloan ere plangintza berean murgilduz .

. Taldeen osaketa

- 10 ume inguruko taldeak. Horrelako taldetxoak eginez gero, monitoreak hobeto konponduko dira eta haurrentzak ere beraien artean konfidantza lortzea errazagoa da. Bestalde, haur bat edo bik kale eginez gero ere, ekintzak burutzeko lain haur egongo lirarteke; beraz, ez gehiegi ezta gutxiegi ere.

- Neskak eta mutilak nahasirik

- Lehen aipatutako hamarreko talde horietan, ikastetxe ezberdinetako haurrak nahastea komeniko litzateke (beti ere kontutan hartuta ze maila duten). Elkar ezagutzen ez dutenak jartze honek baditu bere arrazoiak: elkarren artean ezagunak izanik erdaraz egiteko ohitura baldin badute, oso zaila gertatuko zaio monitoreari giro hori apurtu eta euskararen aldekoa sortzea. Faktore garrantzitsua beraz.

Begiraleei dagokionez, gutxienez urtebetean taldeak begirale bera edukitzea komeni da. Honela konfidantza sendotu egingo da eta begirale horrek umeak hobeto ezagutuko ditu (honek dituen abantailekin)

- Komenigarria al da B ereduok D ereduokekin batera jartzea? Hasieran (Hasiera Zikloa) nahastea nahiko arriskutsua izan daiteke, oraindik ereduaren arteko diferentzia handia izan daitekeelako baina 4. mailatik aurrera elkartu daitezke liskarrik edo giro arrarorik sortu ez dadin.

Dena den, proportzioak ikusi beharko lirateke. Talde batean B ereduak 2 edo 3 haur eta D ereduak 7 edo 8 elkartzea posible ikusten da baina alderantziz eginez gero, ziur aski giro erdalduna nagusituko litzateke. Kontutan izanik B ereduok erderarako joera handiagoa dutela beraiek gehiengo izanda, besteek ere erderaz hitzegiten hasteko arriskua dago .

Garbi dagoena zera da: egoera konkretuek eta kasuan kasuko arazoek markatuko dutela hartu beharreko bidea.

Gaur egun (1992) Hasiera Zikloan 210 haur daude Elgoibarren: B ereduak 95 haur eta D ereduak 115. Guzti hau kontutan harturik honelako taldetxoak egin daitezke:

- . 9/10 talde B ereduok (95) Haur kopurua talde bakoitzean 10/11
- . 11/12 talde D ereduok (115) ... Haur kopurua talde bakoitzean 10/11

Datu eta kopuru hauek aldatu egingo dira urtez urte, matrikulatutako haurren kopurua eta proportzioak aldatu egiten baitira.

. Noiz egin

Printzipioz larunbatak, Gabonetako oporrak eta udako oporrak aprobetxa daitezke honelako ekintzak burutzeko. Uda eta Gabonetako oporretan burutzea garrantzitsua da haurrek euskararekin duten lotura eten ez dadin; konstantzia eta jarraipen bat lortu behar da.

Ordutegia finkatzeko, haurrek ze ordu duten libre ikusi beharko litzateke (haur askok kirol-ekintza ezberdinetan eta beste ekintza batzutan parte hartzen dutelako) baina H. Zikloan ez dut uste hau arazo bat izango denik.

. Non egin

Ikastetxe ezberdinetako gelak erabil daitezke baina, komeniko litzateke mundu horretatik kanpo mugitzea, bestela, haurrak ekintza hauek aste barruko eskola orduen luzapen moduan ikus ditzake. Haurrak Euskara-Ikastetxea binomioa apurtzea lortu behar dugu, ikastetxetik at eta irakaslerik ez dagoenean ere euskaraz egin daitekela ikusi behar du.

Garbi dagoena talde bakoitzak bere lokala eduki behar duela da, bere gauzak gorde eta ekintza desberdinak burutzeko.

Hauek dira besteak beste Elgoibarren erabiltzeko moduan egongo liratekeen lokalak:

- Polikiroldegia.
- Aubixa aterpetxea.
Hau aprobeitza daiteke irteerak egiteko, egun bat baino gehiago eskatzen duten ekintzak burutzeko eta abar.
- Merkatu plaza (dantza).
- Elkaratearen egoitza
- Frontoiak (ikastola, Pilar)
- Zaharren egoitza (sukaldea)
- Ikastetxeetako gelak
Besterik ezean, hauek ere erabil daitezke baina kontutan izan goian aipatutakoa.

Garbi dago ekintza desberdinen ezaugarriek definituko dutela erabili beharreko tokia.

. Nolako ekintzak

Ekintza hauek motibagarriak izatea ezinbestekoa da: hurrekin egingo ditugun kanpo ekintzetan, giro atsegina sortu behar dugu eta giro horri eutsi. Umeak pozik joatea da lehenengo helburua, plazerra eta euskara uztartu behar ditugu haurren baitan. Umeen jokaera jakin bat indartu nahi denez gero, umeak era horretan jokatzeko duenean erantzun gustagarria jaso behar du (monitorearen onspena...) berriro ere jokaera berdinerara jo dezan. Umeak modu batez jokatzeko erantzun gustagarria jasotzen badu, hurrengo batean ere modu horretan jokatuko du, gustoko erantzunaren bila.

Ahaztu egin behar da diskurtsoaren edota zigorraren eragina eta modu positibo batez bultzatu euskararen erabilpena, horretarako ekintza egokiak aukeratuz.

Bestalde, egoera hauek antolaketa errazekoak, laburrak eta monitoreak kontrolatzeko modukoak izatea komeni da. Haurrak aspertzea ekidin behar den gauza da eta monitoreak hori bideratzen jakin beharko du, egoki deritzonean moztuz eta abar.

6.- GERORA BEGIRA

Hizkuntz gaitasuna eskolaren eta gurasoen ardura den bezala, erabilera beste gizarte-eragile batzuren menpean dago eta indar horien ondorioa dugu haurrek hizkuntza bat ala bestea erabiltzea. Gizarte-eragile horietara jo beharra dago haurren hizkuntz portaera aldatu nahi bada.

Eskolorduz kanpoko iharduerak sortzea ez da nahikoa nahiz eta lagungarri gertatu. Egokiak eta positiboak izan arren, haurren espazio naturala euskalduntzeari ekin behar zaio.

Gaur egun haurrak gero eta okupatuago daukate bere denbora librea iharduera desberdinetan: kirolak, musika, dantza, atzerri-hizkuntzak, klase partikularrak, kristau ikasbidea eta abar. Iharduera hauek, beraz, haurren euskalduntze prozesuaren giltzarri gerta daitezke, bere aisialdiaren zati handi bat hartzen dutelako, eta eskolaz kanpoko beren harreman sozial garrantzitsuenetarikoak berauetan garatzen direlako.

Jarraian, Elkarteak aurrerantzean eman nahi dituen urratsen berri emango dizuegu:

- 93/maiatza:

Gai honi buruz SIADECO enpresak dituen iritzi-proposamenak eta Elkartearenak uztartuko ditugu norabide berean jarri asmoz.

- 93/ekaina:

Asmo guzti hauek bideratzeko lan-talde bat osatu nahi dugu.

- 93/iraila-abendua:

Eskolaz kanpoko ekintzen bi urtetarako plangintza prestatu.

- 94/urtarrila:

Eskolaz kanpoko ekintzekin hasi.

- 94/urte osoa:

Elgoibarko haurrak eskolaz kanpoko orduetan non ibiltzen diren detektatu eta hauetan Euskarak duen presentzia eta erabilera neurtu.

- 95/urtarrila:

Arestian aipatu esparruetan, euskalduntze prozesua aktibatu.

- 96/urtarrila:

Haurra eta Euskara:

- . Eskolaz kanpoko ekintzak.
- . Ludoteka.
- . Besterik.

EGILEA: ELENA SAN MARTIN

ARDURADUNA: "ELGOIBARKO IZARRA"ko HEZKUNTZA TALDEA

BABESLEA: "ELGOIBARKO IZARRA" KULTUR ELKARTEA

